



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koadernoak

2
0
0
8
/
0
9

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. maila

IRAKURTZEKO GAITASUNA

Zuzenketa eta erregistro jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak 2008ko maiatzean eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiek puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea normahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioa berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak, zuzenketa egin eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea. Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.

Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukeraren bat baino gehiago adierazi dituzenean (eta ezabatu gabe bat baino gehiago utzi dituzenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonen dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeneoan jarraitu zaien ikusteko.

Haritza eta ezpala

Markina deritzon herri polit batean aita-seme batzuk bizi ziren, eta, elkarren antza handia izateaz aparte, izen eta ezizen berdinak zituzten. Semea gaztetxoa zenean aitari Prakaman deitzen zitzaion eta semeari Prakamantxo; semea gizondu zenean eta aita zahartu, semea bihurtu zen Prakaman eta aita Prakaman zaharra. Aita hil zenean semea egin zen aberastasun guztien jabe.

Nork ez daki zer diren haritza eta ezpala? Aita-seme hauek, haritza eta ezpala bezala, antza handia zuten, baina bazituzten desberdintasunak: biak ziren hizlariak, berriak, lagun asko zutenak, denekin ongi ematen ziren gizonezkoak ziren.

Halere, bien arteko ezberdintasun bat zera zen: aita etxe zalea zen bitartean semea kalezalea zen; aita, langilea; semea, alferra.

Seme hau lanbide asko ikasten hasi zen: arotza, hargina, jostuna... Eta azkenean lepoa hazi eta urdaila lasaitzen hasi zitzaionean eta aitaren poltsa estutzen, itsasgizon sartu zen.

Prakaman zaharrari semearen itsasoratzeak urteak asko laburtu zizkion; nahiz haritz sendo baten itxura izan, gorputz handikoa eta bizitza askokoa, gizajoa okertu eta handik hainbat hilabetetara lurra jo zuen.

Semeak, handik sei hilabetetara Donostian zegoela izan zuen heriotzaren berri eta oinez abiatu zen bere herrira aitak diru pila handia utziko ziola pentsatuz. Baina nahiz hori egia izan, berehala xahutu zituen sos guztiak semeak.

Eta handik aurrera han ibiltzen zen Prakaman edozein ezkontza eta janaria zegoen edozein bileratan; eraikuntza bat amaitzen zen bakoitzean egiten zen bazkarietara joaten zen, bera langilea ez izan arren.

Emakume artean ere lotsa handirik gabe sartzen zen, eta hauetariko askok, neska ezkongabeak batez ere, lotsa gutxikoak hauek ere, ez zuten bidaltzen.

Emakume hauen gizonik gabeko bilerak heriotza baten ondoren edo emazte batek haurra izaten zuenean gertatzen ziren. Haurra izan berria den emakumeak bere familiartekoen eta bizilagunen bisita jasotzen du, denak emakumeak, eta ogia, ardo eta beste zenbait jaki jaten dituzte. Bilera hauei bataioa, andra-ikustea, martopila, atso-lorreta, emarkaria, kusari, etab. deitzen zaie, toki bakoitzean desberdin.

Prakaman honelako jan-edateetara sartzen zen irribarrez. Eta nahiz eta bilera hauek luzeak izan, beti zegoen emakumeren bati losintxa egiteko prest irribarrea ezpainetan zuela. Neska zaharrei neskato deitzen zien; emakume zaharrei, andrea; oso zaharra bazen, amandrea; neskatxei, donibane lorak; haur jaioberriaren amari berriz sendabelarren errezetak ematen zizkion, urrutiko jendeak nola hezitzen zituzten beraien seme-alabak eta beste zenbait berri eman ondoren. Haurrarengatik uso-kumea, lumarik gabeko txitatxoa, hegorik gabeko aingerua, udaberriko goiza... eta honen antzeko hitz laudagarri asko esaten zituen. Prakaman ez zen inoiz ahazten haurrak aitaren antza zuela, amaren sudurra eta aitabitxiaren begiak zituela esateaz.

Mahaian esertzen zenean beti hartzen zuen ardotxo bat ama berriaren osasunean eta izenean. Amona batek baino gehiagok azaltzen zion Prakamani bere ezadostasuna eta beraiengatik balitz kanpora irtengo litzateke behin baino gehiagotan, atetik nahiz leihotik barrena.

Bilera hauetako batean, Prakaman azaldu aurretik heldu ziren emakume zahar batzuk honela mintzatu zitzaizkion ama berriari:

- Frantziska, gaur ez zaio barkatuko alfer, zuri gogaikarri horri. Lan ere “hau egingo nuke eta beste hau ere bai” esanez eta inoiz ez du ezer egiten. Har dezagun erabaki bat denok batera eta ez dugu berriro hartu beharko.
- Orain arte ni barru txarreko zat izan nauzue. Ni bisitatzera datorren gizona, gizon lasaia da, inori kalterik egiten ez diona, bidali egin behar al dugu ogi eta ardo pixka bat ez emateagatik?
- Frantziska: hori gizona bada, gure gari-soroetako txorimaloak ere gizontzat har ditzakezu. Zu ez mugitu. Ni arduratuko naiz hemen egin beharrekoaz. Arin, ekarri iezadazue uztarri bat, bai bi idi elkarren aldamenean lotzeko erabiltzen den egurrezko tresna hori, bai. Zuetariko batek eraman ezazue haurra ohera eta bere orde zehaskan uztarria ipiniko dugu, Frantziska.
- Azkar, azkar, badator Prakaman! –esan zuen beste emakume batek –Ez al duzue ikusten? Zoaz hemendik, txotxolo, tentel, mihi-labain hori!
- Mari Andres, isilago, entzun egingo zaitu bestela! –esan zion Frantziskak.
- Ez dezala gero inork barrerik egin –esan zuen ideia maltzurra izan zuen andreak–. Barre egin nahi duenak, egin dezala orain.

Handik gutxira sartu zen Prakaman. Ordurako mahai-zapi zuriz jantzitako eta pitxarrez, ogiz eta jakiz betetako bi mahai handi zeuden elkarren parean. Prakamanek, agurtzeko txapela eskuekin ukituaz, esan zuen:

- Jaungoikoak gaur bezalako arratsalde on asko emango al dizkigu; baina batez ere etxeoandeari, nire eskola-laguna den Frantziskari, bere seme uso-kumeari, erreka ondoko lore ederrari eta ama-semeak goratzera etorri garen guztioi. Hor dago Mari Andres ere, beti bezain eder.
- Bai; hemen nago, beti bezala. Zu, Prakaman, ez zara beti horrelakoa.
- Mari Andres eta ni beti bizilagun onak izan gara eta ongi eraman gara.
- Haurra zinenean orain baino zintzoagoa zinen, eta ez gutxi. Ez al zara gogoratzen nola hasi zinen hargin lanetan nire senar zenarekin? Ai! Orduan gerri hori orain baino bigunagoa zegoen.
- Mari Andres beti Valentziako laranjak bezalakoa iruditu zait: kanpoa mikatza baino oso gozua barrutik. Mari Andresek beti izan du niretzat, haurtzarotik, hitz gogorra baino bihotz biguna. Frantziska: edan dezagun ardo pixka bat zure eta zure haurraren osasunean eta hemen gauden guztion osasunean.
- Horretarako bai –esan zion Mari Andresek, -horretarako hobe zara gerria makurtu eta lanean izerditzeko baino. Haurra non dagoen begiratu ere ez du egin...

- Mari Andres, eta ez badut ikusi ere zer? Amari begiratzearekin ohartzen naiz semea ederra dela, izter lodikoa eta masail gorrikoa, aldare nagusiko aingeruen modukoa. Baina ez pentsa ez dudarik ikusi. Hor dago, ederra, sehaskan ongi bildua. Sudurrean aitaren antza du, bekokia eta ezpainak amarenak ditu, nire ustez, ederra eta lepo-zabala izango da, aitona bezala.

Hau entzutean, zahar eta gazte, neskato eta neska zahar, etxekoandrea eta emakume zaharra, denak algaraka hasi ziren, bilerako guztiak batera hasi ziren lehertu beharrean barrezka. Bat baino gehiago saiheztari helduta zegoen, barrearen barreaz arnasa hartu ezinik, eta gazteetako batek kanpora irten beharra izan zuen barruan arnasa falta zitzaiola sentitzen baitzuen.

Orduan Mari Andresek sehaskatik uztarria atera zuen, zapian hain ongi bildua utzi zuen egurrezko uztarria. Besoetan hartu zuen eta Prakamanen aurrean jarrita hau esan zion:

Prakaman bat, Prakaman bi

Prakaman nor den ezetz igarri.

- Hemen duzu zure haur ederra, aldare handiko aingeruen antzekoa, izter lodikoa. Begiratu ondo. Zure aita ere oso berritsua zen eta ez da harritzekoa: "Haritzak ezpala bere behatzekoa".

R.M. Azkue. Euskal Herriko ipuin hautatuak. "Haritza eta ezpala"

1. "Eta azkenean lepoa hazi eta urdaila lasaitzen hasi zitzaionean eta aitaren poltsa estutzen itsasgizon sartu zen". Zer esan nahi du?

- A. Gehiegi gizendu zenez, itsasgizon sartu zela han gehiago nekatuko zelakoan.
- B. Aitak lodiegia egoteagatik ez ziola dirurik ematen eta itsasgizon sartu zela.
- C. Urteek aurrera egin ahala aitaren dirua amaitzen hasi zitzaiola eta itsasgizon sartu zela.
- D. Lepoko eta urdaileko arazo fisikoekin hasi zenean itsasgizon sartzea erabaki zuela.

2. Zein ezizen zituzten aita-semeek?

- A. Haritza eta Ezpala.
- B. Prakaman eta Prakamantxo.
- C. Markina eta Donosti.
- D. Prakaman eta Mari Andres.

3. Zer erlazio dute “Haritza eta ezpala” izenburuak eta istorioak kontatzen duenak? Azaldu hitz gutxitan zergatik jarriko zion izenburu hau narrazioari.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Protagonista Prakaman da, eta bere aitarekin antza handia du. Aita semeak haritza eta ezpala bezala dira, oso antzekoak.
2	2	Protagonista Prakaman da, eta oso berritsua da, bere aita bezala. Aita semeak haritza eta ezpala bezala dira, oso antzekoak, eta berritsuak .

4. Aitak eta semeak antza handia zuten...

- A. biak hizlariak, berritsuak eta langileak zirelako.
- B. biak etxezaleak, langileak eta hizlariak zirelako.
- C. biak berritsuak, lagun asko zituztenak eta alferrak zirelako.
- D. biak hizlariak, berritsuak eta lagun asko zituztenak zirelako.

5. Zer esan nahi du “Prakaman Zaharrari semearen itsasoratzeak urteak asko laburtu zizkion”?

- A. Urteak oso azkar pasatu zitzaizkiola.
- B. Urteak, semea ez egotean, oso motel pasatu zitzaizkiola.
- C. Hainbat hilabetetara hil egin zela.
- D. Semeak diru guztia eraman ziola eta horregatik azkar hil zela.

6. Protagonistak, aitak utzitako diruak gastatu zituenean, zer egiten zuen ondo bizitzeko?

- A. Itsasgizon jarraitu zuen.
- B. Neska aberats batekin ezkondu zen.
- C. Diru eske ibili zen.
- D. Janaria zegoen edozein ospakizunetara joaten zen.

7. Testuan protagonistak erabiltzen zituen zenbait losintxa edo laudorio ageri dira. Aipa itzazu erabiltzen dituen bost laudorio.

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	5 laudorio aipatzeagatik, ondoko hauen artean: <ul style="list-style-type: none"> - Neskato (neskazaharrari) - Andrea (emakume zaharrari) - Amandrea (oso andre zaharrari) - Sendabelar (haurra izan duen amari) - Donibane lora - Uso-kumea - Lumarik gabeko txitatxoa - Hegorik gabeko aingerua - Udaberriko goiza - Erreka ondoko lore ederra - Valentziako laranja - Aldare nagusiko aingeruen modukoa - Izter lodikoa eta masail gorrikoa - Beti bezain eder

8. Behin Frantziskaren etxean honen haurraren jaiotza ospatzeko bilduta zeuden emakumeek ideia maltzur bat izan zuten. Zein?

- A. Denen artean hartu eta leihotik behera botatzea.
- B. Ume jaio berriaren sehaskan uztarri bat ipintzea.
- C. Gari-soroetan txorimalo baten antzera jartzea.
- D. Bi idiekin batera lotzea.

9. Frantziskaren etxean bilduta zeuden emakume guztiei ongi iruditu al zitzairen ideia maltzur hura?

- A. Bai, emakume guztiak ados zeuden.
- B. Frantziskak berak ez zuen guztiz garbi maltzurkeria egin behar zitzaionik.
- C. Beste emakumeei ez, baina Frantziskari bai.
- D. Frantziska baino ez zegoen ados.

10. Zer erlazio dute protagonistak eta Frantziskak?

- A. Elkarrekin ikasi zuten.
- B. Senar-emazteak ziren.
- C. Bizilagunak ziren.
- D. Protagonistak ez zuen Frantziska ezagutzen.

11. Ondorengo baieztapenetan zein da guztiz zuzena?

- A. Protagonistak onartu zuen umea ikusi gabe deskribatu zuela.
- B. Protagonistak dio umea ikusi duela eta horregatik deskribatzen duela.
- C. Protagonistak ez du umea ikusi eta ez du deskribatzen.
- D. Mari Andresek ez dio protagonistari umea ikusten uzten.

12. "Haritzak ezpala bere behatzekoa" esamoldea gaztelaniazko zein esamolderekin parekatuko genuke?

- A. Sus dedos en la espada de roble.
- B. En casa del herrero cuchillo de palo.
- C. Más vale pájaro en mano que...
- D. De tal palo tal astilla.

13. Ondo dakizun bezala, narrazioek (ipuek adibidez) ondorengo egitura dute: Hasierako Egoera (HE), Arazoa (A), Ekintzak (E) eta Amaierako Egoera (AE). Esan ondorengo esaldietako bakoitza egituraren zein ataletan kokatuko zenukeen.

	1	2	3	4
	HE	A	E	AE
"Baina nahiz hori egia izan, berehala xahutu zituen sos guztiak semeak".	X			
"Bilera hauetako batean, Prakaman azaldu aurretik heldu ziren emakume zahar batzuk honela mintzatu zitzaizkion ama berriari:...".		X		
"Begiratu ondo, zure aita ere oso berritsua zen eta ez da harritzekoa: Haritzak ezpala bere behatzekoa".				X
"Markina deritzon herri polit batean aita-seme batzuk bizi ziren..."	X			

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Bi ongi edo gutxiago.
1	1	Hiru ongi.
2	2	Denak ongi.

14. Narrazioen beste ezaugarri bat denbora-antolaketaren erabilera da, adibidez: behin batean.... Aipatu testuan ageri diren 5 denbora antolatzaile.

.....

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	3 denbora antolatzaile aipatzeagatik, edo gutxiago.
1	1	4 denbora antolatzaile aipatzeagatik, hurrengo lerroan aipatzen direnen artean.
2	2	5 denbora antolatzaile aipatzeagatik, ondoko hauen artean: <ul style="list-style-type: none"> - Handik hainbat hilabetetara. Handik... - Berehala - Handik aurrera - [Bilera] hauetako batean - [Azaldu] aurretik - Handik gutxira - Hau entzutean - Orduan - Ordurako - Orain arte - (eman) ondoren - Eta azkenean - Behin baino gehiagotan - Gaur - Mahaian esertzen zenean - Aita hil zenean - Beti - Semea gaztetxoa zenean

15. Narratzaileak dio: “Bilera hauetako batean... “

Zein bilerari buruz ari da?

- A. Emakumeak elkarrekin josteko elkartzen ziren bilera batzuk.
- B. Kartetan jolasteko elkartzen ziren bilera batzuk.
- C. Elkarrekin ikasteko elkartzen ziren bilera batzuk.
- D. Zerbait ospatzeko elkartzen ziren bilera batzuk.

16. Testuaren narratzailea aztertuz, ondorengo zein baieztapen da zuzena?

- A. Narratzaileak kanpotik kontatzen du istorioa 3. pertsonan.
- B. Narratzailea istorioko protagonista da eta 1. pertsonan kontatzen du.
- C. Narratzailea istoriako pertsonaia da eta 3. pertsonan kontatzen du.
- D. Narratzaileak 2. pertsonan kontatzen du istorioa.

17. Testu honek ba al du moraleja edo irakaspenik? Erantzuna baiezkoa bada esan zein den.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Ondorengo bietatik bat aipatzeagatik: 1. Alferkeriak ondorio txarrak ekartzen ditu. Lanik egin gabe bizitzea ez da erraza... 2. Jakin gabe hobe ez hitz egitea.

Ur kutsatua edango genuke?

Uraren kutsadura jotzen bada Hirugarren Munduko sinbolotzat, airearen kutsadura Lehenengo Munduko sinbolo dela esan liteke. Eta galdetu diot neure buruari non dagoen ezberdintasuna gaixotzen bazara edaten duzun uragatik edo arnasa hartzen duzun aireagatik.

Neuk, alde eder bat aurkitu dut: airearen kasuan, errua gurea da, eta banatua, gainera. Nahiz eta askok industrial-osteko mamuak bilatzen jarraitzen ari diren, gure hirietako airearen kalitate ezak erantzulea dauka: ibilgailu motorduna. Hona hemen benetako *egia deseroso* bat, autoa bihurtu dugun estatus ikurra ukitzen duelako.

Ez dut irakurri behar txosten batean, baina ez soilik txostenen joerak fidagarriak ez direlako, nire hirian egunero usaintzen, ikusten eta *ukitzen* dudalako. Beste leku batera begiratzen buka dezagun. Pozoitzen ari gara, eta geu baino ez gara erantzuleak. Kaleetan auto gutxiago behar dugu. Hainbeste apologia autoaren alde ez da aurrerapena ezta bizi-kalitatea ere; batzuen egoa elikatzeko besterik ez du balio.

Ur kutsatua ez genuke inolaz ere edatea onartuko; zergatik onartzen dugu aire kutsatua arnastea?

Iñaki Diaz de Etura
Berria, 2008ko apirilaren 8a

18. Zein izango litzateke testu honen komunikazio asmoa?

- A. Irakurleak entretenitzea.
- B. Gai baten inguruan iritzia ematea.
- C. Instrukzioak ematea.
- D. Besterik gabe gai baten inguruan informatzea.

19. Eta nori zuzendua dago?

- A. Iñaki Diaz de Eturari.
- B. Hirugarren Mundukoei.
- C. Lehen Mundukoei.
- D. Gu guztioi.

20. Ondorengo esaldietatik zeinek jasotzen du hobekien igorleak testuan defendatzen duen tesia (iritzia edo balorazio nagusia)?

- A. Uraren kutsadura Hirugarren Munduko sinboloa bada airearen kutsadura Lehen Munduaren sinboloa da.
- B. Airearen kutsaduraren errua gurea da, eta horren erantzule ibilgailu motorduna da.
- C. Ur kutsatua ez dugu edaten, ezta aire kutsatua arnastu ere.
- D. Autoaren aldeko apologia ez da aurrerapena, ezta bizi kalitatea ere.

21. Testu honen bigarren paragrafoan dio: “egia deseroso”. Zer esan nahi du horrekin?

- A. Autoa ez dela eroso.
- B. Aire kutsatzea ez dela eroso.
- C. Ibilgailu motordunak direla kutsaduraren erantzule esatea ez dela jendearen gustukoa.
- D. Ibilgailu motordunak deserosoak direla.

22. Testuaren hirugarren paragrafoan ageri da “ukitzen” hitza kurtsibaz idatzia. Zergatik erabili du hizki mota desberdina hitz hori idazteko?


- A. Hizki mota hori gehiago gustatzen zaiolako.
- B. Hizki mota hori hobeto ikusten delako.
- C. Hitz hori nabarmendu nahi duelako.
- D. Huts bat izan da.

ZUHAITZ EGUNA

AHOLKUAK: NOLA ALDATU ZUHAITZ BAT

Urrezko araua:

Zuhaitz bat erosi aurretik, jakin behar da zein tamaina hartuko duen erabat garatuta dagoenean. Bestalde, kalkulatu behar da zein itzal emango duen hazten denean eta zenbat urte biziko den ere jakin behar da.



- 1** Etxe ondoan zuhaitz txikiak landatu. Hegoaldekoko fatxadetan, hosto galkorrak dituztenak aldatu (udan eguzkitik babesteko eta neguan itzal gehiegi ez emateko). Itxitura edo pantaila bat lortu nahi bada, urte osoan hosto berdeak izango dituen zuhaitza aukeratu.
- 2** Lorontzietan urte osoan alda daitezke zuhaitzak, izozten duenean izan ezik. Sustraiak ondo bota dituela ziurtatu behar da.
- 3** Lorategietan, zuloak egin behar dira landatu baino hilabete lehenago (zabaleran eta sakoneran sustraiak baino 10 cm gehiago ireki). Euria egin ondoren egunetan zulotik ura ez bada desagertzen, seinale ez duela ondo drainatzen. Beraz, ttonttor baten gainean aldatu.
- 4** Saiatu zuhaitzaren lepoa ez lurperatzen. Bete zuloa lurrez, ongarritu eta beldurrik gabe ureztatu.
- 5** Sartu makila bat zuloan, haizeak jotzen duen aldean, zuhaitza tente egon dadin. Enborrari kalterik ez egiteko, bildu apar-gomarekin edo oihal batekin eta handitzen doan heinean joan soka elastikoa laxatzen.
- 6** Eite handiko zuhaitza aukeratzen bada, sartu plastikozko hodi bat (makarroia) zulo ertzean, azaletik hondoraino, sustraiak ondo ureztatu ahal izateko.
- 7** Enborraren inguruan ez dadila belarrik hazi (pinu azalak erabili horretarako), zuhaitzaren hazkundera errazteko.
- 8** Birlandaketetan, zuhaitzek asko sufritzen dute. Hori dela eta, lagundu daiteke sustraitzeko hormonen bidez edo izerdia galarazteko sustantzien bidez. Galdetu adituren bati.
- 9** Ez eraldatu zuhaitzaren oinako lurra.
- 10** Ilbehera da garairik onena birlandaketak egiteko, ongarrria botatzeko, intsektuei aurre egiteko eta fruitu gehiago lortzeko inausketa egiteko; zuhaitzari indarra emateko, berriz, ilgoran egin behar da inausketa eta egur ona lortzeko, ilargi betean.

Zuloaga Txiki Ingurumen Eskola

Zuhaitz eguna

23. Zein izango litzateke testu honen komunikazio asmoa?

- A. Zuhaitzak dituztenei aholkuak ematea nola zaindu behar dituzten jakiteko.
- B. Zuhaitzak erosi behar dituztenek jakin dezatela zein zuhaitz erosi.
- C. Irakurleak entretenitzea.
- D. Zuhaitz bat landatu nahi dutenei nola egin jakiteko aholkuak ematea.

24. Aholkuak emateko aditza agintera eran darabil...

- A. 10 aholkuetan.
- B. Lehen bost aholkuetan.
- C. Bigarrenetan eta hamargarrenean izan ezik.
- D. Azken bost aholkuetan.

25. Testu honetan behin eta berriz erabiltzen du “landatu” aditza. Zein beste aditza erabiltzen du ekintza hori adierazteko?

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Aldatu

26. Aholkuak ematen hasi aurretik “Urrezko araua” dio. Zer esan nahi du horrekin?

- A. Urrea nola bilatu jakiteko araua dela.
- B. Arau hori besteak baino garestiagoa dela.
- C. Beste aholkuak bete aurretik kontuan hartu beharreko gauza garrantzitsua dela.
- D. Besteak bezalako aholkua dela.

27. Testuko aholkuak zenbatuta azaltzen dira 1etik 10era.

- A. Zuhaitz bat landatzeko bete behar diren 10 arau dira.
- B. Zuhaitz bat landatzeko 10 aholku dira, pausoz pauso bete beharrekoak.
- C. Zenbakiak testua apaintzeko besterik ez dira erabiltzen.
- D. Zuhaitz bat landatzeko kontuan hartzeko aholkuak dira, baina ez nahitaez pausoz pauso.

28. Zazpigarren aholkuan dio “Enborrharen inguruan ez dadila belarrik hazi (pinu azalak erabili horretarako), zuhaitzaren hazkundera errazteko”. Zer funtzio betetzen du parentesiak?

- A. “Hazi” hitzaren esanahia azaltzen du.
- B. Ondoren esango duenaren azalpena da.
- C. Aurretik esan duena nola egin azaltzen du.
- D. Ez du funtzio berezirik.

29. Testuan maiz azaltzen dira hitz konposatuak. Hauek kontuan izanik, zein hitz sail dago guztiz testuko hitz konposatuez osatua.

- A. Lorontzi, lorategi, galkor, apar-goma.
- B. Apar-goma, lorontzi, ilbehera, enborra
- C. Ilbehera, hegoalde, ilgora, lorontzi.
- D. Hazkunde, lurperatu, ongarritu, galkorra.

30. Zein izango litzateke testu honen igorlea?

- A. Nekazari elkarte bat.
- B. Zuloaga Txiki Ingurumen Eskola.
- C. Nafarroako Gobernuko Nekazari Departamentua.
- D. Zuhaitz Eguna Elkarte.